

2023ko apirilean "Nor da gure sorkuntzaren jabe? Kultura ekonomia sozialaren ikuspegitik" jardunaldia egin zen Donostiako Dokan, KoopFabrikaren programa barruan.



KOOPFABRIKA

KOOPFABRIKA

kooperatiba eraldatzaileen harrobi

Olatukoopek beste hainbat eragileekin batera garatu duen proiektu nagusienetako bat KoopFabrika da, ekintzailatza soziala bultzatzeko helburuz 2017an sorturiko programa, eta gaur egun oraindik martxan dagoena.

Hasiera batean, lehenengo ideia izan zen ekonomia eraldatzailearen bueltan biltzen ari ziren kooperatiba eta eragileek euren formaziorako tresna bat izatea, garbi ikusten baitzuten hutsune handi bat zutela, bidelaguntzarik ez zutelako norabide horretan. Olatukoopen zebiltzan enpresa askotan ere ez zuten euren egiturak ekonomia eraldatzailearen baliotan bideratzeko formazio nahikorik. Beñat Irasuegi Olatukoopeko kideak 2008ko krisiak ekarritako "lurralde garapenaren porrotarekin" lotzen ditu hastapen horiek. Hainbat eskualde eta udal erakundek beharra ikusi zuten beste estrategia bati heltzeko, esaterako Hernanin edo Bergaran, eta behar

horri erantzuteko hasi zituzten lehenengo ekintzailatza sozialeko programak, Bergarako *Berrikin.Berregin* modukoak; gero, hortik egin zuten KoopFabrika programa zabalagora jauzia.

Lehen unetik hainbat unibertitate eta erakunderekin elkarlanean egin du bidea KoopFabrikak. Olatukoopez gain, Mondragon Unibertsitateko Lanki Kooperatibismoaren Ikertegiak eta EHUko Gezki, Gizarte Ekonomiaren eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak antolatzen dute, eta Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruko Departamentuak finantzatzen du. Aurten gainera Cristina Enea fundazioaren laguntza izan dute eta Donostiako bere egoitzan egin dituzte Ekintzailatza Kooperatiboko Eskolako saio guztiak.

Parte-hartzaileek, esperientziak ezagutu eta formazio saio teorikoez gain, bidelaguntza izaten dute euren proiektuak aurrera ateratzeko fasean. Azken edizioeko datuak kontuan hartu gabe, aurrekoetan denera 680 pertsonatik gorak jaso dute formazioa, 113 proiektuk izan dute bidelaguntza, eta horietatik 69 jarri dira martxan Gipuzkoako eskualde guztietan. Gainera, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan ere ekonomia eraldatzaileko ekimenak sustatu ditu KoopFabrikak.

KOOPFABRIKA HEGOALDETIK
Martxan jarritako proiektuen artean, KoopFabrika Hegoaldetik izeneko dago. Pertsona migratuei ekonomia eraldatzaile hurbildu eta ekintzailatza kooperatiboa sustatzeko tresna bat da, Enarak kooperatibaren, Olatukoopen eta Lankiren artean egina, "kolektibotasunetik abiatuta eta asistentzialismotik urrun". Besteak beste, Kataluniako, Madrilgo eta Andaluziako esperientziak ezagutu dituzte ekimen horretan parte hartu dutenek.